

Kiklos

Alberto Ladron Arana

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2003



Zumaiko Udala

*enkar
txanpa*



Kiklos

Alberto Ladron Arana

Julene Azpeitia 16. ipuin lehiaketa

2003

1. saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Alberto Ladron Arana (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

ASTELEHENA

Gaur nire bizitzako egunik zoriontsuena izan da.

Hala ere, esnatu naizenean, ezerk ere ez zituen adierazten nire zain zeuden gertakari zirrargarriak. Izan ere, ezin egoera okerragoan esnatu naiz: burua lehertzeaz nuen, burukomin lazgarri batek hartuta. Gihar guztiak indarge nituen, hariak eten dizkioten txotxongiloa banintz bezala. Kolpeak nituen gorputz osoan eta ia ezin nuen begi bat zabaldu.

Estura larri batek hartu nau: gaixorik ote nengoen? Bart gauean gehiegi edanda? Ezin nuen ezer gogoratu. Ezertxo ere ez, eta horrek are larriagotu egin nau. Erantzun lazgarria nire ondoan topatu dut, gau-mahaiaren gainean. Bertan pilula kutxa txuri bat ikusi dut. Eskua dar-dar batean zebilkidan kutxatxo hartu dudanean. Beldur nintzen, bihotza aurrentipen lazgarri batek estuturik. Ez dut botikaren izena irakurri behar izan jakiteko loeragile indartsu bat zela. Zabaldu berria bazen ere, pilulen erdiak falta ziren.

Izu-laborriak hartuta, pixaz eta goitikakoez zikinduriko ohetik nekez jaiki eta, une horretantxe, berriz ere jaioko banintz bezala sentitu naiz. Oinazez, nahasturik, gaixorik, baina bizitzeko gogoz.

Patuak dei egiten zidala sentitu dut.

Dei horrek bultzatuta karrikaratu naiz. Euripeko espaloiak ibili ditud, neure baitan eromena hazten sentitzen nuela. Anitzetan zorabiatu eta eseri behar izan dut. Murrez aurrera erori naiz behin. Ez nuen pentsatu nahi. Pentsamenduek erre egiten ninduten barnetik. Jendea presaka igarotzen zen nire ondoan, zira distiratsuetan bilduta: itsas animalia arraroak iruditu zaizkit, nire beldur ziren eta aldi berean gorroto bizia zidaten piztia beltz hezeak. Nora ezean ibili arren, norbaitek gidatuko banindu bezala sentitu naiz, Patuak urratsak zuzenduko balizkit bezala. Izkina bakoitzean norabide egokia hartzera bultzatuko ninduen ahots entzunezin bat entzuten nuen.

Eta azkenean, denda aitzinera heldu naiz.

Denda txikia da, estua eta apal argizatua. Letra kiribilduetan, "Kiklos" dakarren kartel berde bat dauka atearen gainean. Erakusleiho osoa hartzen duen ikur handi bat dago: bi suge, isatsa elkarri hozkatzen diotenak. Sentipen bitxi batek hartuta egon naiz: toki honetan sekula izan ez banaiz ere, betidanik ezagutuko banu bezala da. Liluraturik hurbildu naiz, Patuaren Eskuaren indar itzela neure baitan sentitzen nuela.

Orduan ikusi dut, bi sugeen ikurrean zehar, zirkulu mistiko hark bilduta.

Ez du hogei urte baino gehiago izanen. Ile iluna du, kiribil zoragarrietan bularreraino amiltzen zaiona. Ijito begi beltzak ditu, sakonak, jakintsuak. Sekula ikusi dudan neskarik ederrena da. Patuak erakutsi dit: dendari zoragarria ikusi bezain laster, lehendik ezagutzen nuelako sentipen ia eramanezina gaineratu zait. Hala ote da? ala bakarrik gure arimen musiken harmoniari egotzi behar diot une magiko hori? Gizon xumea naiz, alproja hutsa, baina neure baitan sentimendu sakonak, sentimendu ederrak sortzeko gaitasuna daukat. Gizon sentibera naiz.

Eta maitemindurik nago, ene arimak neska ezezagun horren bihotzaren erritmora egiten du dantza.

ASTEARTEA

Hobeki esnatu naiz gaur. Kolpe eta mailatuek ia ez didate minik ematen. Atzo kafe beltza litroka edan arren, hamalau orduko loa egin dut. Zozoloturik jaiki naiz, baina, ordu betez edo pixa egin ondoren, argixeago sumatu dut burua. Gose gorriak hartuta, sukaldeko armairuetan topatu dudan guztia jan dut: galleta idor batzuk, margarina pote baten hondarrak eta espageti batzuk, gosearen gosez egosi gabe jan ditudanak. Ez ditut ukitu ere egin hozkailuko barazkiak ezta esnea ere: beldurrezko filma batetik ateratako gauzak ziruditen. Gainera, pozoiturik egon daitezkeelako susmo makurra gaineratu zait. Kafe paketea bukatu dut. Zer ez nuen emanen trago on baten truke! Etxea goitik behera miatu dut, baina bazterretan topatu ditudan botila guztiak hutsik zeuden. Kaka zaharra. Susmoa dut norbaitek edan dituela, ni lo nengoelarik.

Gau-mahaiko pilula kutxa begiz jota, nahastu egin zaizkit barneak. Hainbat orduz ukitzeko beldur egon naiz, baina azkenean ez dit minik eman. Dar-dar batean hartu eta komuneko armairutxoan gorde dudanean, ikusi dut apalategiak marka bereko pilulez gainezka daudela. Izuak hartuta nago. Ez nago neure onean, argi dago, lasaitu beharra daukat.

Kosta egiten zait pentsatzea. Burmuinak nagi sumatzen ditut, geldo, buztinezko. Ez dute lan egiteko gogorik. Hala ere, uste dut komeniko litzaidakeela nire egoeraz hausnartzea. Gogoeta egitea. Ez dut oroitzen zer gertatu den azken egun hauetan. Dena lanbro astun batean bilduta bezala azaltzen zait. Dena den, batzuetan banago lanbro horretan zehar ikus nezakeela... nahi izanez gero. Kontua da beldur naizela bertan ezkututzen dena ikusteko. Alkoholaren laguntza beharko nuke berunezko misterio horri aurre egin ahal izateko.

Dena den, nire aurreko bizitzaren oroitzapenak itzultzen ari zaizkit apurka-apurka. Lana galdu nueneko egun urrun hura, kasu, ezin hobeki oroitzen dut. Baita arratoi aurpegiko sendagile bat ere, barre egiten zidana. Egia erran, ez dira oso oroitzapen ederrak. Batzuetan pentsatzen dut irudi horiek guztiak aspaldi ikusitako film batetik ateratakoak direla, ez direla nireak, beste batek asmatuak baizik. Hala ere, gogoratzen dudanaren arabera, sumatzen hasia naiz nire bizitza ez dela oso eredugarria izan, ezta hurrik ere. Jainkoa, alproja hutsa naizela ohartzen naiz, eta horrek are deprimituago sentiarazten nau.

Zorionez, botila bat aurkitu dut arropa pila baten azpian, Patuak bertan utzita seguruenik.

Komuneko horman marrazki zentzugabeak eginez eman dut arratsaldea: zirkuluak eta halako gauzak. "Kiklos" dendako neskaz pentsatu dut etengabe, malkoak isurtzeraino pentsatu ere.

Euri urdina ari zuen kanpoan.

ASTEAZKENA

Dendara itzuli naiz bart gauean. Bi sugeen ikurrak aldi berean erakarri eta izutu egiten nau. Ez dakit zergatik, baina susmatzen dut alferrik dudala misterio hori argitzen saiatzea. Dendan kandela usaintsuak saltzen dituzte, eta liburu arraroak. Sendabelar pote eta poltsatxoek mukuru betetzen dituzte apalategiak. Sabaitik zintzilik, ilargi ameslariak eta eguzki onberak. Dendatxoak ate berde bat dauka, kristalezko helduleku eder batekin. Halakoa da "Kiklos".

Lo egiterik ez dudanez, ia gau osoan egon naiz dendaren aitzinean. Hasieran beldur nintzen gehiegi hurbiltzeko. Ikur zirkularrak kikildu egiten nau. Baina geroago, ilargia etxe beltzen artean atera eta indartsuago sentiarazi nau. Kemen horretaz jantzita, ateraino ausartu naiz: bi orduz, eskua luzatuta egon naiz, berdez margoturiko oholetik arrabetera, *berak* hainbatetan ferekatutako heldulekua ukitzeko beldurrez. Dar-dar batean bukatu dut. Azkenean, kristalezko esferatxoa ukitu, laztandu egin dut, azal hotz leunean haren eskuñoak utzitako arrastoa argi eta garbi antzemanetz. Eta jakin dut heldulekuan niretzako mezu ezkutu bat zegoela. Amodiozko mezu bat, ene laztanak bertan utzia, nik aurki nezan. Alde egin aurretik musu beroa utzi diot heldulekuan, goizean haren eskuak aurki zezan.

Dendako ateko txarteltxo batek ordutegia adierazten du. Luzaro aritu naiz zenbakiak xuxurlatuz, haien soinuaz gozatuz. Hala ere, zabaltzeko ordua hurbil zegoela ikusita, halako beldur zentzugabe batek hartu dit bihotza. Eguzkia zeruaz jabetuta ikusteak ere urduri jartzen nau. Begiradaz tabernaren bat bilatu dut, baina ez dut bat ere aurkitu. Gainera, ohartu naiz dirurik gabe atera naizela etxetik. Burua ez dabilkit behar bezala. Halako gauzak ezin zaizkit ahaztu!

Dendatik urrundu behar nuela jakin dut. Baina espaloian behera aldendu ahala, arima urratzen sumatu dut: neska ikusi behar nuen, segundo batez bazen ere. Berrogeita hamar bat metrora gelditu naiz, zuhaitz baten atzean erdi kukuturik. Jendeek modu arraroan begiratzen zidatela ohartu naiz. Haietako batzuen pentsamenduak argi eta garbi entzun ditut: gorrotoa eta etsipena nagusi, baita tristezia gris bat ere. Oinezkoek nigandik hurbil igarotzea saihesten zuten. Ez da arraroa: hainbat eguneko bizar trinko batek hartzen nau aurpegi mailatua. Nire arropak lisatu eder baten premian daude. Zabaltzen dudak kiratsak neu ere zorabiatzen nau. Baina, egia erran, kaleratzerakoan ez naiz oroitu nire itxura apur bat txukuntzeaz. Horrek apur bat errudun sentiarazi nau. Lasaitu egin behar dut.

Azkenean, nire bihotzeko aingerua ikusi dut, karrikan behera zetorrela. Atzo baino are ederragoa iritzi diot: distira aratz batez argitzen zituen etxe hitsak, eta hegan bezala zebilen jende arreen gainean. Ez dit begiratu (hobe

hala!), baina sentitu dut neskak bazuela nire berri, nolabait bazekiela ni bertan nengoela, haren zain. Haren arimak nirea ferekatuko balu bezala izan da. Une mistikoa izan da. Karrikan behera urrundu naiz, pozaren pozez begiak malkotan. Maite dut, maite dut, jainkoa nola maite dudan! Apur bat lotsaturik, ohartu naiz goraki ari nintzela hizketan. Hori ez dago ongi, badakit. Baina inork niri begiratzen ez zidala iruditu zaidanean, dantza ttiki bat egin dut. Maite dut! Zoriontsu naiz.

Arratsalde osoan harat-honat ibili naiz etxean barrena, ene laztanaz pentsatzen. Lan handiz, olerki xume bat ondu dut, baina berehala ahaztu dut: urduri baino urduriago egon naiz eta trago on baten premian nengoela iruditu zait. Ezer txarrik ez dago horretan. Ezertxo-ere-ez. Sukaldean billete zimurto batzuk aurkitu eta botila beltz bat erosi dut. Badakit diru hori beste zerbaitetan gastatu beharko nukeela, arropa dotorean, kasu, edo auto hori handi batean. Baina ongi pentsatuta, aukera ospatzea merezi du, ezta? Hala ere, gehiegi edan dut eta gauza itsusiak egin. Horrek gaizki sentiarazten nau: azken batean, ene laztanaren heineko izan behar dut: garbia, aratza.

OSTEGUNA

“Kiklos” aitzinean egon naiz goiz osoan. Ezin lasai egon, ordea: ondoko dendetako enplegatuek begirada mesfidatiak botatzen zizkidatela ohartu naiz. Haien begiek orratzak bezala sartu zaizkit aurpegian eta belaunetan. Udaltzainen auto bat harat-honat ibili da, baina agertzen ikusi orduko, alde egiten nuen. Ez dago eskubiderik! Nola eduki behar dut jarrera duin bat ene laztanaren aitzinean, hamar minuturo lasterka egin behar baldin badut? Nolanahi ere, istilu desatsegin horiek gorabehera, liluraturik egon naiz ene maiteari begira. Ezin goxokiago hartzen ditu bezeroak, nahiz eta batzuk jendilaje hutsa izan: larruzko jakako tipo bat, adibidez, ezin modu gordinagoan aritu zaio. Inolako lotsarik gabe begiratu dio neskari, zoo bateko animalia balitz bezala. Neskak, hala ere, sekula ez du ezpainetatik irribarrea ezabatu. Eta sakrifizio itzel hori ni hari begira nengoelako egiten zuela jakin dut bat-batean: ez zuen nik pentsatzerik nahi bera neska suminkorra dela, ez dakiela bezeroekin txukun aritzen. Lasai, laztana, badakit aingeru goitarra zarela, ez didazu inolako erakusgarririk eman behar!

Etxean zauri itsusi bat egin dut eskuan: larruzko jakako piztiz pentsatzen ari nintzen eta botila huts bat lehertu zait hatzen artean. Tranpa itsusi bat izan ez ote den susmatzen dut. Dena den, oinazea maitasun bihurtu dut: odol ilunez, ene aingeruaren erretratu xume bat margotu dut egongelako zoruan. Gero, kate batez egindako zirkulu batean sartu dut, inork zapal ez dezan.

Arratsalde osoa lotan eman dut, guztiz akiturik bainengoen goizeko bizipen zirrargarrien ondorioz. Saiatu naiz atzoko olerki ederra gogoratzen, baina burua lehertu behar zitzaidala sentitu eta amore eman dut. Oroimen txarreko gizona naiz, onartu behar dut.

Gaur ere edan dut. Uste dut norbaitek bete dituela nik hustutako botilak, lotan nengoen bitartean. Ideia horrek apur bat asaldaturik eduki nau, baina azkenean ahaztu egin dut. Alkoholak, gainera, eman dit nire laztanaz pentsatzeko kemena. Nirekin biziko balitz! Etxe osoak irri egingen luke: ateak,

armairuak, erlojuak, guztiak barrez lehertuko ziren... Badakit ez naizela beste munduko gauza, akats anitz ditudala, baina arima sentiberako gizona naiz, ezagutzen ninduten guztiek gauza bera erraten zidaten, sentiberatasun handiko gizakia naizela. Nirekin biziko balitz! Ez nuke ukitu ere eginen, zin dagit. Ez nioke ukitu lizunik eginen. Kontu horiek itsusiak dira, zikinak. Eta arima sentibera baten jabe garenok ez dugu zantarkeria horien beharrik. Nazka ematen digute. Horiek animalien moduko itsuskeriak dira. Ezin dut irudikatu ere egin nire maitea halakorik... Ezinezkoa da! E-z-i-n-e-z-k-o-a.

OSTIRALA

Pentsatu dut ene laztanarekin hitz egiteko ordua dela. Badakit maite nauela, horretaz seguru nago: gure arimek ez diote elkarri gezurrik erraten. Baina uste dut egokiagoa litzatekeela zuzenean hitz egitea. Bestela, pentsatuko du koldar hutsa naizela, ez naizela ausartzen harekin hitz egitera! Ez naizela behar bezain gizon. Badakit barregarria dela, baina batzuetan emakumeek oso burutazio xelebreak izaten dituzte. Ni oso gizona naiz. Gizon-gizona.

Bart hitz egokiak aukeratzen aritu naiz. Gaizki samar pasatu dut zeren, esaldi eder bat asmatu orduko, lehenago bururatu zitzaidana ahaztu egiten bainuen. Uste dut argindarraren harien errua dela: horma guztien barneak hariz josita daude. Hori ezin parte onekoa izan. Alkoholak lagundu eginen zidalakoan nengoen, baina lortu dudak bakarra alditxartzea izan da. Azkenean, deliberatu dut hobe izanen dudala erran beharrekoa bihotzak iradoki bezalaxe erratea. Bat-batekotasuna ederra da. Freskoa.

Kemenez jantzita abiatu naiz "Kiklos"era, baina iritsi bezain laster ohartu naiz ez zela une egokia: koloreak arraroak ziren, mehatxuzkoak. Zoritxarrez, nire bihozkadak laster izan du baieztapena. Larruzko jakako tipoa berriz ere sartu da dendara. Haren esku alimaleko tatuaiak beldur eman dit: bi sugez osaturiko zirkulu beltz bat. Ordu erdia eman du nazkanteak nire laztana amorrarazten. Ordu erdia! Neskak eraman handiz hartu du eraso zantarra. Kemen miresgarria azaldu du aingeruak. Ni, berriz, hortzak estuturik egon naiz denbora osoan, karrikaz bestaldean kukuturik. Pixagaleak hiltzen ninduen, gainera. Kosta egin zait dendara sartu eta putakume horri ez oldartzea. Baina berehala igarri diot maltzur horren asmoari: horixe da haren estrategia, ni xaxatu eta neure onetik ateraraztea. Ero alu bat bezala agerraraztea. Izugarri poztu litzateke dendara sartu eta muturrekoa emanen banio, nire laztanaren aitzinean basati hutsa bezala azalduz. Uste dut neure buruaren kontrola askoz ere atseginagoa izanen zaiola ene laztanari. Nor da orain basatia, e? Nor da orain animalia, putakume hori? Jai duk, hireak egin dik!

Telebistaren beldur naizenez, irratia piztu dut, baina ohartu naiz aurkezle gehienek mezu ezkutuak lerratzen zituztela beren solasetan. Gehienak niri eta ene laztanari buruzkoak zirelako susmoa izan dut: ez zuzenak, baizik eta zeharkakoak, itzalgaizkakoak. Eta maltzurak, gauza zikinak iradokitzen zituztelako. Armairu batean gorde dut trastea: orain ez dut astirik halako kontuez arduratzeko, emakume zoragarri bati zabaldu behar baitiot nire bihotza.

Ezin urduriago nago, neure onetik aterata.

LARUNBATA

Dendako ate berdea bultzatu dudanean estu eta larri nengoen, ez nau lotsatzen aitortzeak. Ene laztana erakustokiaren atzean zegoen, baina ez naiz zuzen begiratzera ausartu. Nahiago izan dut apalategietako produktuei erreparatzen nielakoa egitea, bezero arrunta banintz bezala. Egia da, ez naiz oso gizon agertu. Azkenean, erakustokiaren parera iritsi naizelarik, bildu ahal izan dut ene bihotzeko aingeruari bekoz beko begiratzeko kemena. Urduri zegoela antzeman diot. Dar-dar batean, egia erran. Ez zela arraroa pentsatu dut, azken batean susmatuko zuen zertara joana natzaiola. Neu ere halaxe nengoen, zainak airean, bihotza ahotik botatzeko puntuan. Belarren eta kandelen usainak pentsamenduak kutsatu eta nahastu egiten zizkidan. Ez nekien zer erran, nondik hasi. Badakit hala ere zerbait erraten hasi naizela, baina une horretantxe dendako atea brast zabaldu eta ahots haserre batek eraso dit:

—Berriz ere hemen, putakumea halakoa? Erran nian: hil egingen haut, alua halakoa!

Larruzko jakako piztia zen. Bere onetik aterata oldartu zait. Jarrera duinari eusten saiatu naiz, baina tatuaiako eskuak emandako lehenbiziko muturrekoak lurrera bota nau.

—Kontuz maitea! —erran du aingeru baten ahotsak—. Armaturik egon daiteke eta!

Ene laztanaren ahotsa! Hitz ezti horiek ukendu baten gisa eragin didate. Nitaz kezkatu zegoen! Haren ahotsaren dardara hunkigarria zen, ezin samurragoa niri hitz egiteko modua! Piztiak ostikoka zehatu banau ere, ez dut min handirik sentitu, lotsa bakarrik nire laztanaren aitzinean hala erabilia izateagatik. Piztiak sugeen ikurraren gainera bota nau eta aurpegia kristalaren kontra zanpatzen zidalarik zera xuxurlatu dit, amorruek desitxuraturiko ahotsaz:

—Hilik egon behar huen aspaldian, alu hori! Hilik!

Okerrena gero etorri da. Piztiak karrikara bota nau bultzadaka. Egia erran, ia ez naiz ohartu ere egin: ene laztanari erran beharreko hitzak gogoratzen saiaten ari nintzen. Gero, lasaitasuna, autoen burrunba eta gaueko hotz morea. Odoletan egon arren, erabaki dut dendatik hurbil gelditzea. Hil-hurren nengoen, baina ikusi nahi nuen nire aingeruak nola egiten zuen nire alde, nola bidaltzen zuen larruzko jakako astopito hura karrikara.

Baina ez da halakorik gertatu. Ez da halakorik gertatu eta min fisikoari sentimenduen oinaze jasanezina gehitu zaio. Neskak piztia besarkatzen zuela ikusi dut. Minutu luzez biak elkarri estu-estu helduta egon dira, bi sugeen zirkuluaren barnean. Musuka hasi dira gero, elkar jan beharrean. Goragale bortitzek jota banengoen ere, bazirudien nire begiek aho goseti haien grina guztia xurgatu nahi zutela, ezin nuen begirada zantarkeria hartatik saihestu. Mingain haien hots likitsek jazarrita alde egin dut.

Zuhaitz beltzak nire gainera makurtu dira etxerako bidean. Gau laranjak ankerki barre egin dit. Jendeek nazkaz begiratu didate. Haietako batzuk oso

itsusiak ziren, aurpegirik gabeko munstro beldurgarriak. Ene laztana! Ene bihotzeko aingerua! Zuk huts eginez gero, nireak egin du! Negarrez ibili naiz, hotz karraskan, seinale baten zain. Eta ilargi beteari begiratuta, jakin dut zer egin behar dudana: pilulak. Bai horixe, pilulak!

Pilulakpilulakpilulak...

IGANDEA

ASTELEHENA

Gaur nire bizitzako egunik zoriontsuena izan da: Patuak azkenean erakutsi dit bidea.

Hala ere, esnatu naizenean, susmorik ere ez dut izan Patuak ekarri behar zizkidan bizipen zoragarriez. Izan ere, amesgaizto batean esnatu naiz: buruak taupada sorretan egiten zidan eztanda, burmuinek alde egin nahi zidatela zirudien. Goragale bortitzek jota, nire urdail gaixoa ahotik botatzeko puntuan egon naiz. Izerdi izoztu batek hartzen zizkidan lohadar guztiak: gaixorik ote nengoen? Bart gauean gehiegi edanda? Gorputza kolpez eta ubeldura izugarritz josita neukala ohartu naiz. Ezin dut ezertxo ere gogoratu: aurreko egun eta aste guztiak lanbro urdin baten pean daude.

Izugarria da, erotzeko moduko sentipena.

Gau-mahaiaren gainean pilula kutxa txuri bat ikusi dut. Arima aurrenentipen lazarri batek estuturik hartu dut. Lo eragiteko pilulak dira. Ez da bakar bat ere geratzen. Jainkoa! Jainko maitea! Zer egin dut?

Izu-laborriak hartuta, odolez eta goitikakoez zikinduriko ohetik jaiki eta, une horretantxe, berriz ere jaioko banintz bezala sentitu naiz.

Patuak dei egiten zidala sentitu dut. Hasieran, baina, ez dut Haren dei indartsua ulertu. Hitz bakarra zen: Kiklos, Kiklos, Kiklos...

Baina azkenean denda aitzinera heldu naiz. Eta sentipen bitxi batek hartu nau: toki honetan sekula izan ez banaiz ere, betidanik ezagutuko banu bezala da. Badakit hemen zoriontsu izanena naizela.